

## OIHENART-EN LEXIKO-SORKUNTZA

Miren AZKARATE

Oihenartek euskaraz idatzirik utzi zigun ondaretik —hots, *Atsotitzak eta Gaztaroko neurtitzak*—, idazle xuberotarrak zer-nolako hitzak sortu zituen aztartzekotan, egokiago dirudi bigarren sailekoei, Oihenarten poemei heltzea. Izan ere hor aurkituko ditugu bere-bereak dituen hitz elkartu eta eratorriak; Mitxelenak esan zuen bezala, «Oihenarten egiazko umei lotu bear, berak sortuei alegia, ez auzoan bilduei. Sortu ta utzi zizkigunak, euskaldunen ondasunari bere baitatik erantsi zizkion aleak [...] bere neurtitzak dira»<sup>1</sup>. Beste baterako geratuko da atsotitzetako hizkeraren, lexiko-sorkuntzaren azterketa. Interesgarria izan daiteke, dena den, biok konparatzea. Lehenak, hizkuntza lantzeko ahalegin dezentekoa egin zuen poetaren emaitza ageri digu; bigarrenak, herriak, halako helbururik gabe, barne-gramatika horretako erregelez baliatuz sortuak erakutsiko lizkiguke. Ba ote desberdintasunik? Eta hala balitz, zenbaterainokoa da aldea? Beste ekinaldi batean eman beharko zaie galdera horiei erantzuna.

Oihenarten neurtitzetako lexiko-sorkuntza aztartzeko, berriz, bi atal nagusi bereiziko ditugu, ohizkoa denez hitz elkartuei eta eratorriei sail bana eskainiaz. Bestalde, egingo ditudan ohar eta iruzkinek bi xede dituzte, sinkronikoa bata, diakronikoa bestea: Oihenarten lexiko-sorkuntza sistema modura jaso nahi dut, XVII. mendeko zubereraren lekuko, eta, aldi berean, lau mendetan zehar aldaketarik izan den eta gaurko lexiko-auzietan Oihenartek argirik eman ote dezakeen ikusi.

Ohar bat azkenik. Francisque Michel-ek bere 1847.eko edizioan eskaini zituen poemak ere aztertu ditut, nondik hartuak diren jakiteko F. Michel

---

<sup>1</sup> «Arnaut Oihenart», *BAP* IX, 1953, 445-463. or. [Gero beste bi bider jasoa: *Idazlan Hautatuak*, Bilbo, Etor, 1972, 233-256. or. eta *Sobre Historia de la Lengua Vasca II*, Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» 10, Donostia, 1988, 866-879. or.]

erantsiaz parentesi artean testuingurua ematean (gainerakoetarako Lopez-Mendizabalaren 1936.eko edizio faksimilaz baliatu naiz). Halaber, Oihenarten lexikosorkuntza osorik jasotzea interesgarri izan daitekeelakoan, hitz eratorri eta elkartu guztiak (oharkabean itzuri zaizkidanak salbu) ezarri ditut testuinguru eta guzti. Grafia-kontuei dagokienez, hitzaren aipamena gaurko grafian eman dut, testuinguruan Oihenartena berarena errespetatuaz (testuinguruetan dena den ez dut bertso bakoitza letra larriz hasi Oihenartek egin zuen bezala; bestalde «z» grafemak Oihenarten afrikatua adierazten du). Azkenik, hitz elkartua edo eratorria Oihenartek berak neurtitzen amaieran erantsi zuen hiztegitxoan azaltzen bada, hala azaldu dut testuinguruaren ondoren. Modu berean, sistematikoki erantsi ditut oinoharretan Lafonek<sup>2</sup> eginiko iruzkin kritikoak.

## HITZ ERATORRIAK

Hitz eratorri ugari ageri dira Gaztaroko neurtitzak izeneko poema-sortan. Bat baino gehiago Oihenartek berak sortuak izan daitezke edo testuetan lehenengoz berak erabiliak behintzat. *Senalcari*, *maitari*, *izartegi*, *laketgia*, *berotsdun* edo Mitxelenak Oihenarten asmakizuntzat dituen *hamarkun*, *hamalaurkun*. Lafonek<sup>3</sup> berak ere behin baino gehiagotan aipatzen du halako hitza edo bestea ez dela hiztegitan azaltzen. Hala ere, lehen aldiz neurtitz hauetan agertu izanak ez du esan nahi xuberotar poetak asmatuak direnik; izan daitezke herriko hizkeratik hartuak. Horren ondoan Oihenarten hizkera poetiko «jasoa» ere ezin dugu ahaztu, hizkuntza landu nahiak berak eraman baitzezakeen hitz berriak sortzera. Hitzok, haatik, ez dira aldrebesak, ondoren ikusiko dugun bezala.

Oihenart erator-atzizkiez nola baliatu zen aztertzean, berriz, ondoko puntuetan bilduko nituzke nire ustez azpimarratzekoak direnak:

### 1. Atzizkien aldaerei dagokienez,

- a. Jatorriz xuberotarra izanik eta ezkondu ondoren zenbait urtez Nafarroa Beherean bizi izana, Iparralde-ekialdeko euskalkietako aldaerak dira aurkituko ditugunak: *-doi*, *-tze*, *-tarzun*, *-gia*...
- b. *-ari* eta *-kari* besterik ez dugu aurkitzen, bigarren aldaera kontsonantearen ondoren eta bokal-bilkura eragozteko batipat.

<sup>2</sup> «Notes pour une édition critique et une traduction française des poésies d'Oihenart» BSVAP 1955, XI, 135-173. Artikulu bera aurki daiteke ASJU aldizkariko 1955ko alean, 61-99.

<sup>3</sup> «Notes...»

- c. *-mendu* eta *-pen* aldaerak ageri dira, banaketa *-a / -i* + *-mendu* eta kontsonantea + *-men / -pen* delarik (kasu honetan txistukariaren ondotik ahoskabea dugu). Lau adibide besterik ez direnez zaila da ondorioak ateratzea; baina aldaera hauen banaketa azaltzeko hipotesi bat izan daiteke.
- d. Gaur galdua dugun *-zu* ageri da oro har, *onbidetsu* eta besteren bat kenduta. Halaber, *-izun*, *-ide* hasierako herskaririk gabeko forma zaharagoak ditugu Oihentartengan.
- e. *-ko* erator-atzizki adjektibalaren bi aldaerak *-ko / -tako* erabiltzen ditu, Iparraldeko tradizioan gertatzen den bezala<sup>4</sup>. Hiru adibide baino ez direnez ezingo da behar bada generalizaziorik egin; dena den ohargarria iruditzen zait izenari eranstean zaion forma *-ko* (*aran-lili itxurako*) eta izenondoari zuzenean eranstean zaiona *-tako* (*minzatze ederretako, izpiritu are hobetako*) izatea.
- f. Azkenik, zubereraz ohizkoa denez, *-l* kontsonantearen ondoren *-tu* aldaera ageri da, herskaria ahostundu gabe: *hurbiltu, heltu, gibeltu*. Sudurkariaren ondoren, ostera, *-du* aurkituko dugu: *hurrendu, urrundu, hebaindu* etab.
2. Hitz eratorrien sorkuntza, hau da, zein atzizki hautatzen duen eta zein oinarri eranstean dion aztertzean, bereziki aipatzekoak dira ondokoak<sup>5</sup>:
- a. *Maitari / maitakari*, izen biziduna lehena, bizigabea bigarrena. Lehen adierarako, Urtek<sup>6</sup> *maitalari* eta *maitatzaile* proposatzen ditu; Larramendik<sup>7</sup>, *amatzalle*, *maitatzalle* eta *maitea*. Hitz berriren bat sortzerakoan gaur aurkitzen ditugun bikote eta hirukoteak ez dira, beraz, atzo goizekoak.
- b. 'Egile' izenak sortzeko *-le* da ageri zaigun forma nagusia, *-tzaile*-ren adibidea bakarra izanik. Oro har Azkuek eginiko bereziketaren arabera banatzen dira *-le* eta *-tzaile*, baina badira bi adibide aipagarri. Batetik, *ekoizle* aditz-izena nola hartu behar dugu: *ekoi(t)zi* zen partizipio zaharra, eta horrenbestez ez da harritzeko *-le* agertzea; ala *ekoiztu* izan arren, aditzoinaren amaierako txistukariak indar handiago izan du, nolabait esatearren, *-tu* formako partizipioa izateak baino? Eta bestetik

<sup>4</sup> Ikus honetaz P. Altuna eta M. Azkarate, «-ko / -dun atzizkiez» *Luis Villasanteri omenaldia*. Iker 6, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992, 91. - 112. or.

<sup>5</sup> Atzizkien ohizko erabilera eta balioez ikus Azkueren *Morfología Vasca* edo L. Villasanteren *Palabras Vascas Compuestas y Derivadas*, Oñate, ed. Franciscana Aránzazu, 1974.

<sup>6</sup> P. d'Urte: *Dictionarium latino-cantabricum*, Londres, 1715 (P. Urkizu: *Pierre d'Urteren Hiztegia*, Mundaiz Unibertsitate Saila, Euskal Filología, 1 eta 2, Deustuko Unibertsitatea, Donostiako egoitza, 1989)

<sup>7</sup> M. Larramendi: *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latin*, 1745 (Donostia, Txertoa, 1984, edizio faksimila).

zer esan *iorrale* izenaz? Hemen ez baitago zalantzarik partizipioa zein den. Badirudi, beraz, Azkueren bereizketa ez dela hertsian hertsian betetzen, eta beti ere *-le* atzizkiaren aldeko jokabidea erakusten duela Oihenartek.

- c. *-goa* atzizkiarekin ditugun izenek —*hongoa, eskasgoa, erhogoa*— erakusten digute hiruretan *-tarzun* atzizkiaren balio bera duela *-goa*-k; hala dirudi behintzat. Alde honetatik hobeto aztertzekoa litzateke behar bada *hongoa* eta *hontarzun*-en artean ba ote dagoen inolako desberdintasunik.
- d. —*zain* atzizkia<sup>8</sup> *zor*— aditzoinari elkartu izana. Oihenartek berak ematen duen itzulpenak adierazten digu hor aditzoina *sortze* izenaren pareko dela.
- e. Aditz-izenak sortzeko *-tze* atzizkiaz baliatzen da behin baino gehiagotan. Aldiz, *-kuntza* edo *-kunde*-ren adibiderik ez dago. Bestalde aurkitu ditudan *-keta* atzizkiaren bi adibide bakarretan, *pensaketa* (*egon*) eta *elhaketan*, ez dirudi egiazko izenak ditugunik; *-tzen* ‘zertan’ *egon*/aritu-ren baliokide direla esango nuke. Dena den *elhaketan*, *elhe* izena den neurrian, *hizketan*-en pareko da; horrenbestez, ezin da esan egiaz aditza dugunik oinarrian, nahiz ekintza baten erreferentzia *egon*.
- f. *-tu* atzizkiak modu askotako oinarriak hartzen ditu, gaur bezalaxe eta ondorioz aldaera bat baino gehiago ageri du: *-ztatu*, *-ratu*, izenlagun oinarriak berarekin dakarren *-retu* (*guretu*, *zuretu*)... Aditz eratorri hauen artean *hil-nahi* izen elkartuaren gain craikitako *hil-nahitu*, edo *biharamun*, *haragi* izenetik sortutako *biharamuntu*, (*h*)*aragitu*, zeharo gardenak izan arren eguneroko hizkerakoak ez ditugunak, aipatuko nituzke.
- g. Ohargarria da zalantzarik gabe —*ra*— artizkia oraindik ere balio arazlean aurkitzea *erantzun* aditzean.
- h. Azkenik, gaur ihartutzat jotzen ditugun *-duru* eta *-zarre* atzizkien adibide bat edo beste ematen dizkigu Oihenartek: *ogenduru* eta *ukenduru* batetik, *maitazarre*, *beteginzarre* eta *gorazarre* bestetik.

3. Atzizkien emankortasunari begiratu bat emanez ohartzen gara Oihenartentzat bereziki emankor gertatu ziren *-ari*, *-tasun* (*-tarzun*), *-tsu* (*-zu*), edo *-tu* atzizkiak, hala ditugula gaur ere. Bestalde, azken urteetan emankortasun handiko izan diren beste batzuen *-hala nola* *-tegi* edo *-gailu*-ren adibiderik ere ez da falta (*izartegi* edo *herskailu* Oihenartek berak sortuak izan daitezkeenak, Oihenartek ez baitzien inongo euskalki-markarik ezarri bere hiztegitxoan).

<sup>8</sup> Azkueren atzizkien zerrendan ageri ez den arren, ikus M. Azkarate: *Hitz Elkartuak Euskaraz*, Mundaiz, Unibertsitate Saila, Euskal Filologia, 3, Deustuko Unibertsitatea - Donostiako egoitza, 1990, 380-392. or.

4. Hitz elkartuko bigarren osagai diren ala erator-atzizkitzat hartu behar ote ditugun eztabaida sortu dutenak, edo gramatikariek modu desberdinean tratatu dituztenak behintzat, atzizkien zerrendan sartu ditut. Hala ere *kide* edo *zain* 'zaintzaile' izen bere gain gisa erabiltzen dituen neurrian, gertuago egongo lirateke elkarketatik eratorpenetik baino<sup>9</sup>.

Hona ondoren atzizki bakoitzaren adibideak. Atzizkiak alfabetoaren arabera ordenaturik eman ditut, irakurleari aurkierrazago gertatuko zaizkiolakoan. Bestalde, itxura bereko izan arren, sortzen dituzten hitzen kategoria eta atzizkiaren adieraren arabera, atzizki desberdinak direla garbi dagoenean zenbaki bidez bereizi ditut.

#### -ari<sub>1</sub>

senalkari: beti, su saren lecura / so xuxen ari / nais, senalcari / okerraren eredura (IV)<sup>10</sup>

maitari: maitarien iaun erregueac / higu ditu borxa-legueac, / eta haren resuman libertatea, / da gobernari, eta nabouffi alkatea (VIII) 'amant' (O.)<sup>11</sup>  
aldis dun maitariaren / mait' orde hig' vkena (XI)

ban' eracutfu maitari / gaisoac, bai vrricari, / bai gupida tuzula (XIV)  
governari: maitarien iaun erregueac / higu ditu borxa-legueac, / eta haren resuman libertatea, / da gobernari, eta nabouffi alkatea (VIII) 'gouverneur'

merkatari: carrountaturic odola, / hala nola, / ordus, mercataria, / saparretic oldarzean / es-vstean / bide-selhataria (Eguberri-koplak) 'le marchand'  
zelatari: carrountaturic odola, / hala nola, / ordus, mercataria, / saparretic oldarzean / es-vstean / bide-selhataria (Eguberri-koplak) 'le brigand en embuscade'

zerbitzari: baletfa iaungoicoari / har nensan serbizari (XIII) 'qu'elle me pût pour serviteur'

lasterkari: iauqui disut, et' ihefari / dema, hara, laurherroan: / araus, sein eder laftercari / den suri eracutf-gogoan (XV)

ohaidekari<sup>12</sup>: esisal' ohaidecari, / es' ohoinkeri' eguile, / es guesurreasco iaquile (Iaincoasco nevtizac)

karbari: ora gavan laur karbari / karban hanche siren ari (Lavr karbarien eressia, F. Michel)

<sup>9</sup> Ikus honetaz M. Azkarate, *Hitz Elkartuak Euskaraz*, Mundaiz, Unibertsitatea saila, Euskal Filologia 3 z., Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 1990, 380-392. or.

<sup>10</sup> Lafon, «Notes...»: *Senalcari* me parait être obtenu en ajoutant le suffixe d'agent *-cari* au substantif *senal* (esp. *señal*). Je crois que ce mot signifie «qui fait des signes».

<sup>11</sup> O. laburdura ondoren daramaten itzulpenak, Oihenartek berak erantsi zuen hitz-zerrendadoak dira (cf. «Explication des mots rares qui se rencontrent parmi ces vers»)

<sup>12</sup> Hara nola azaltzen duen Oihenartek berak: «Paillard, de *obaide* qui veut dire concubin ou concubine. Ce mot estoit for commun anciennement, comme l'on peut voir en plusieurs vieilles chansons»

konseilari: Corte guehiengan Erregueren confejillari senaren gorasarretan (Salgvis Iavn, Paveco..., F. Michel)

**-ari<sub>2</sub>**

maitakari: guerostic ešparansas hasi / dut neure maitacaria: / egunes egun irabasi / vřtes sutan ordaria (XV)

janari: Ašpaldi du, harc arrencura / espal' vkan nisas, supura / ioan ninsatela, eta xixari / ehunen eguin han ianhari (Ezkontidearen hil-kexua)

ordari: et' ene bihoz gaxoac / higanic, maita-sari, / herscailu ordari, / sitin tragasa-xiloac (IX)

guerostic ešparansas hasi / dut neure maitacaria: / egunes egun irabasi / vřtes sutan ordaria (XV)

Pazkokari<sup>13</sup>: eta gusis Pascocari / bařc'a adi ceruc' oguias (Elisaren manüac)

**-be**

ilunbe: lepo' arrai mirazeco, / goxo befarcazeco, / bolarr' ask' ilhumbean / argui serbizazeco (X)

Nic suen asturac et' atunac, / gu baitan orano es ensunac, / arguiratu' tut ilhumbeti (Escontidearen hil-kexua)

aterbe: vřte nuen nihauc er' ekaizac / io banensa, neure surcaizac / sintusquedal' eta habeac, / neur aisolbe, neur' aterbeac (Ezkontidearen hil-kexua)

aizolbe: vřte nuen nihauc er' ekaizac / io banensa, neure surcaizac / sintusquedal' eta habeac, / neur aisolbe, neur' aterbeac (Ezkontidearen hil-kexua)

'S.M. lieu ou l'on est à couvert du vent' (O.)

**ber-**

berrerosi: seric gogatu isan baita / seruco aita / gure beherostera (Eguberri-koplak) 'Racheter' (O.)

**-bide**

itzurbide: hilzen, nun izurbideric, / es deus salba nesanic / estun, higanic / ahal nuqueenas berseric (IX)

bakabide: hunl' ene penazea / baka bide bailesa (X)

galbide: ban' ezar' ařqui gaiz, darizat, / gaisqui horren eguiteco; / galbidera, maita sarizat, / maite saituen' egosteco (XV)

**-doi**

sagardoi: sagardoibaten barnera / sar citen, oren honean (Lavr karbarien ernessia)

**-dun**

zordun: et oharzen / seren sordun saudeen (II)

<sup>13</sup> Aditzondo balioan.

<sup>14</sup> Non ez dagoen oso argi zer den *baiz-* eta *-be-*ren artean dagoena.

espanun hant' idokiten, / sordun isan besala, / hic hil nunala, / dinat hil aitorr' vziren (XI)

herotsdun: oin, tipis, herotsduna / sango aratsu, xuguna (XII) 'herots: bruit, renommée; herotsduna: qui est fameux pour quelque qualité particulière qu'il a, soit bonne ou mauvaise' (O.)

**-duru**

ogenduru: estusu ser vka, sareI' oguenduru / es ser har ait'amen nahia stacuru (VI)

vkenduru: bana galde nausun horres / vkenduru neguisu (II, F. Michel)

**-gai, gei<sup>15</sup>**

hil, ala bizigei: esi ordu dut iakinsu isan, / hil, ala vicigui nisan (VII)

jeigei: barur eguic ieiguetan (Elisaren manüac)

deuskai: esi esta deuscai edertarsuna, / lagun espadu hontarsuna (V)

**-gailu**

herskailu: et' ene bihoz gaxoac / higanic, maita-sari, / herscailu ordari, / sitin tragasa-xiloac (IX) 'emplâtre ou bandage' (O.)

gordailu: estaskit esterrasket, / gordailuan daunsanac (X)

**-garri**

pitzgarri: serbait eur 'ontarsuneti, / bihots hunen pitzgarri, / emadan sarri / beguirazeco hilzeti (IX)

dolu egingarri<sup>16</sup>: halas gaisquize hunetan / nun alabain esarri, / dolu egingarri, /huna niagon hil minetan (XI)

miragarri: aldís bi beharriac / churi miragarriac, / saldoa maitariri / gorheritan iarriac (XIII)

maitagarri: ni svrezen has besain sarri / berhes nindisun bertaric, / lehen hautatu maitagarri / nituen, nindutenetaric (XV)

lot eta erexekigarri: suhaz motas hob' esina, / et' ongui hauta sedina / honein saindu lohadarri / lot et' erexequi-garri (Vexilla Regis) 'digne d'être lié et attaché (à des membres si sacrés)<sup>17</sup>

osagarri (iz.): Aldis, picoa, higanic, / hil-hurrenean isanic, / sitikeguc, guc bisiac / offagarri hic emanic (Lavr karbarien eressia)

hezagarri: noisbait, ala dioite elgarri, / aho hoién hesagarri, / nonbait cerbait espadugu / galdú behar gara sarri (Lavr karbarien eressia)

<sup>15</sup> Non bi formen arteko bereiztasuna nola formula daitekeen ez dudán garbi ikusten (i bokala izan daiteke hurrengoá ixten duena, baina ez dakit arrazoi zuzena den).

<sup>16</sup> Oinarrian *dolu egin* aditz esapidea dagoelakoan eratorrien artean sailkatu dudana. Baina behar bada hitz elkartu sintetikoén artean ere ezar zitekeen.

<sup>17</sup> Lafon: «Traduction française des poésies d'Oihenart». Beraz, -garri-ren balio 'pasiboa' dugu hemen.

**-gia**

laketgia: haren preondeguia / ene laketguia da (XII)

**-gin / -gile**

ilagin: banins besain / sembait bezain / edo ilhaguin sarpasu (II)

gaixtagin: egundan' es-aylis iaïo gaxtaguina / Ederza, nescato onaren seguina (VI)

gaizkigile: gaiskiguiler uztec pena, / gaisqui eguines sor utena (Vexilla Regis)

**-goa**

erhogo: lagun-artean, / hel nadinean, / elhaketan, erhogoan, / esnun dostazen (III)

hongoa: harren gaurgoiti serbait hongoa / vrgaz nesasu iaungoicoas (V)<sup>18</sup>

Eta, suc eguines baisen / cembait-ere hongoa, / hoboro bici ahal naisen / da gauc' esinescoa (II, F. Michel)

eskasgoa: esi afpaldi du haren / meresi handiaren, / esaguza dudala, / et' en' efcasgoaren (XIII)

**-(k)izun**

ahalkeizun : berarc desan bak' ifuna / eta har ahalkeisuna (XV)

**-kara**

luzekara: gorpuza düelaric / lusecara, halaric / xuxen du, et' esta lodi, / es mehe soberaric (XII)<sup>19</sup>

**-keria**

ohoinkeria: esisal' ohaidecari, / es' ohoinkeri' eguile, / es guesurreco iaquile (laincoasco nevtizac)

**-keta**

elhaketa: lagun-artean, / hel nadinean, / elhaketan, erhogoan, / esnun dostazen (III)

pensaketa: en' ixil, eta / mais penfaketa, / egonac siotfan nigati (III)<sup>20</sup>

ser eguin siroen, oldarbat, / egon, sedin penfaketan (Lavr karbarien ernessia)

<sup>18</sup> Lafon: «Azkue donne *ongo* "accommodement"; et Lhande *ongo* "réconciliation". *Hongoa* est formé à l'aire [sic] du même suffixe que *erhogo* "folie". Le thème du mot est en réalité (*hjongoa*). C'est l'abstrait correspondant à l'adjectif *bon* "bon"; il signifie "bonté". Sur ce suffixe dont la forme correcte est *-goa*, voir Schuchardt, Introduction à l'édition des oeuvres de Liçarrague, p. XCI-XCII».

<sup>19</sup> Lafonek honako hau dio: «Le mot *lusecara* n'est pas dans les dictionnaires; mais Azkue signale dans sa *Morf.* qu'il l'a entendu dans la vallée d'Erro (dial. haut-navarrais méridional): il le traduit par «larguirucho». Ez da dudarik bai *-kara* atzizkiak eta bai *luzekara* izenondoak ere askoz hedadura handiagoa dutela euskaraz.

<sup>20</sup> Lafon: «*Egonac*, qui a pour attributs *ixil* et *mais pensaketa*, est pris substantivement; l'ensemble constitue un syntagme à l'actif singulier, qui a pour déterminant *ene* (...). *Pensaketa* veut dire "en train de réfléchir, de méditer"; *pentsaketa zegoen* "il réfléchissait" (Lhande)».



**-(k)ide<sup>21</sup>**

ezkontide: escontidearen hil-kexua ‘C’est ce qu’on dit en Latin coniu, le mary, ou la femme’ (O.)

bilhakaide: han iarriric ararteco, / bilhacaiden bakezeco (Lavr karbarien ernessia)

**-kin**

utzikin: vxtia sedin, picoequin / garhaitu gab’ vziquinic (Lavr karbarien ernessia)

**-ko**

besapeko: et’ ebilten has besain farri / serbizatu sait besapeco / erorteti beguirazeco (Ezkontidearen hil-kexua)

ohako: mihiscando oihal lodis / abel odis / ohacoa seguion (Eguberri-koplak)

**-ko<sub>2</sub>**

aran-lili itxurako: vkaraiä, beffoa, / arhan-lil’-ixuraco (X)

minzatze ederretako: minsaze’ ederretaco, / spiritu are hobetaco, / adimendus, eransun / nic esin besalaco (XIII)

izpiritu are hobetako: minsaze’ ederretaco, / spiritu are hobetaco, / adimendus, eransun / nic esin besalaco (XIII)

zori gaitzetako: anderaurenic, es eta nescatoric, / ni nisan besain, sori gaitzetacoric (VIII)

**-kor**

isurkor: horzac äizinzen, xuris, / esein esne iffurcorri (XIII)<sup>22</sup>

**-kun**

hamarkun: hamarcuna edo Iaincoaren hamar manüac (Iaincoasco nevtizac) ‘Dizaine: il peut estre employé auffi pour signifier le Decalogue’ (O.)

hirurkun: Hiri Iainco hirurcuna, / gusiec guehien vguna, / gog’ oroc, bide besala/ elhefari demaiäla (Vexilla Regis) ‘S. Ternaire, (comme laurcuna, quaternaire,) on s’en peut seruir pour defigner la Trinite’ (O.)

hamalaurkun: hamalavrcuna (F. Michel, Salgvis Iavn, Paveco...)<sup>23</sup>

**-le (ik. -tzaile ere)**

ikusle: bana surequi nahi niquesi / elisan nehor suhaur besi, / et’ ikusleric agueri elisan / lekutara sindiaurisan (V)

oina, kaisus, nolaco? / ikuflen gogaraco (X)

erosle: haren erosle senarrak / ser meresi luque? adarrac (VI)

<sup>21</sup> *-bide* bezala atzizkien artean sartu dudana, nahiz Oihenartek izen bere gain moduan ere badarabilen: «Haren eder isana / da hain gausa becana, / eci estüela kideric / baita genden errana» (XII).

<sup>22</sup> Hona zer dioen Lafonek «Oharretan»: «n’est pas dans les dictionnaires: ‘qui a la tendance à s’écouler’».

<sup>23</sup> Lafonek ohar hau egiten du: «*Hamalurcuna*. Note, en marge: «Quatorzain, ou sonnet».

jakile: esisal' ohaidecari, / es' ohoinkeri' eguile, / es guesurreasco iaquile  
(Iaincoasco nevtizac)

egile: esisal' ohaidecari, / es' ohoinkeri' eguile, / es guesurreasco iaquile (Iaincoasco nevtizac)

erhaile: edo seric icarazen, / eta lazen / bait' erhaile gaxtoa (Eguberri-koplak)  
ekoizle: (Dioitela) luces isala / horl' vkenfu, horl' ekoisle, / orai isana besala  
(Lavr karbarien eressia)

iorrale: Iorralen coblac (F. Michel)

### -men/-pen/-mendu

luzamendu: gau-egun, gois-arrats, edate-iatean / eбилte-gueidze, iaikite-ezatean,  
/ susas disut penaimendu, / neure penen lusamendu (VI)

pensamendu<sup>24</sup>: gau-egun, gois-arrats, edate-iatean / eбилte-gueidze, iaikite-ezatean,  
/ susas disut penaimendu, / neure penen lusamendu (VI)

adimendu: minsaze' ederretaco, / spiritu are hobetaco, / adimendus, eransun  
/ nic esin besalaco (XIII)

ekoizpen: dohatfu hir' orfsto-adarrac, / dohatfu hir' ekoispena (Lavr karbarien eressia)

### -ra-

eranzun: hire fendagaila hunen / berria herri orori, / berri hon hori, / dinat  
goraqui eransunen (IX)

### -ta(da)

eskuta: negvan, elhurte bates, / lastanac eskutabatez, / sudurra saturday (XIV)  
'S. poignée' (O.)

### -tar<sup>25</sup>

zuretar: bana ni bano, / es egundano / nehor suretarragoric (IV)<sup>26</sup>

israeltar: eta glori' emaiteco / israeltarren artean (Simeonen canta)

### -tarzun (-tasun)

edertarzun: esi esta deuscai edertarsuna, / lagun espadu hontarsuna (V)

ser prouexu edertarsuna / da hire gorpuzean, / tinc bihozean / badaxen  
gogortarsuna? (XI)

amets, al'eguia, d'ote nic ensuna, / emaiten dusula sur'edertarsuna, / hon  
estarirozunari (VI)

<sup>24</sup> Berez *penaimendu* da ageri dena, baina Lafonek arrazoi duela dirudi: «*Penaimendu*, qui est imprimé dans les exemplaires de Paris et de Bayonne, ne figure dans aucun dictionnaire et contient un *i* que ne s'explique pas. Dans l'exemplaire de Bayonne, il est corrigé en *pensamendu* (avec *p* suivi d'un esprit rude et *s* longue), et cette correction a été ajoutée, également à la main, parmi les «Fautes d'impression» («Notes ...»).

<sup>25</sup> Berez euskaraz *-ar* / *-tar* aldaerak ditugun arren, Oihenarten adibideetan *-tar* besterik ageri ez delako aukeratu dudana.

<sup>26</sup> Lafon: «le suffixe *tar* exprime l'attachement».

- ontarzun: esi esta deuscai edertarsuna, / lagun espadu hontarsuna (V)  
 sure hontarsunarequi / nitan gainen guducazen (VII)  
 serbait eur' ontarsuneti, / bihots hunen pizgarri, / emadan sarri / beguiraze-  
 co hilzeti (IX)  
 prestus, et' ontarsunes, / berze nefc' oro baitu (XIII)
- onarzun: onarsun-trucu huts, alau' esconzea, / esta hori esconze, bana da  
 falzea (VI)
- gor(i)tarzun: nitan hozac hazen disu, / oren oros, gortarsuna (VII)<sup>27</sup>  
 nic gortharsun, suc gorrtarsun / deracufquegu elcarri, / biac bardin [sic]  
 vermetarsun, / dugu hetan esarri (II, F. Michel)
- gortarzun: nic gortharsun, suc gorrtarsun / deracufquegu elcarri, / biac bardin  
 [sic] vermetarsun, / dugu hetan esarri (II, F. Michel)
- gogortarzun: ser prouexu edertarsuna / da hire gorpuzean, / tinc bihozean /  
 badaxen gogortarsuna? (XI)
- jakitarzun: eta iaquitarunes / orosas gainti uzia (XIII) 'pour ce qui est du savoir'  
 teiarzun: ber' odoals mundu hunen / teiarsunen / offoqui garbizeco (Eguberri-  
 koplak) 'S. Vilainie, de teiu, sale' (O.)
- gizatarzun: eta Iainco isanarequi / erexequi / ledin guisatarsuna (Eguberri-  
 koplak)
- bermetarzun: nic gortharsun, suc gorrtarsun / deracufquegu elcarri, / biac  
 bardin vermetarsun, / dugu hetan esarri (II, F. Michel)
- handitarzun: suc suriac belsuriac, / poru, handitarsunac (II, F. Michel)

**-te / -tze**

- egite<sup>28</sup>: beguis ourdin / besain gordin / sarela sur' eguites? (II)
- mintzate: minsaze' ederretaco, / spiritu are hobetaco, / adimendus, eransun  
 / nic esin besalaco (XIII)
- iraite: seren, nol' ene maite / vkeiteac iraitte / baitu, hur 'ere' aguian, / lusean  
 goga daite (XIII)
- ekoizte: haur da lurreco leguea / gaus' oroc ber' ekoistea (XIV) 'S. jeter. Il  
 signifie aussi le fruit ou la production de quelque arbre ou d'autre agent  
 naturel' (O.)
- hiltze: O ser hilze laz' enetaco! (Ezkontidearen hil-kexua)

**-te<sub>2</sub>**

- elurte: negvan, elhurte bates, / lastanac eskutabatez, / sudurra sapaturic (XIV)

**-tegi**

- presondegi: haren prepondeguia / ene laketguia da (XII)

<sup>27</sup> «*Gortarsun*, qui ne figure pas dans les dictionnaires, est une variante de *gortasun* «ardeur, ferveur», dérivé de *gori* «incandescent, ardent» (Lhande, p. 381) et non de *gortasun* «surdité», dérivé de *gor* «sourd» (Lafon «Notes ...»).

<sup>28</sup> Lafonek ematen duen itzulpenak ez dirudi zeharo zuzena ('votre air est aussi dur que vos yeux sont bleus'), zuzenagoa litzateke hor 'action'.

izartegi: haren ahorpeguia, / ser, baderragu eguia, / ser derrakegu dela / baicic isarteguia? (XIII) 'le ciel étoilé, le firmament' (O.)

karbategui: herena, karbateguiti, / hetara haur datorrala (Lavr karbarien ernessia)  
-ti

egiati: sein ahal den eguiati, / suc beci ehorc eziakisu (VII)

axolati: bana hura, hargati, / nisas est' axolati (X) 'S. axol souci. Adjectif dérivé: axolati' (O.)

-ti<sup>29</sup>

beheiti: bana jagoiti / beheiti, goiti, / zembat ere bainabila (IV)

goiti: bana jagoiti / beheiti, goiti, / zembat ere bainabila (IV)

-tsu

zarpazu: banins besain / sembait bezain / edo ilhaguin sarpasu (II)

gutiziazu: et' vstasu, / guticiasu / nisan horri berere / amerstera (II)<sup>30</sup>

nigartzu<sup>31</sup>: han, ni nigartzu / icuffis, harc su / gogoerizen espasitu (IV)

uluzu (eulitsu): ainsiti, ederric gaiz dena, dusu / berhala, nol efné ulusu / denean, edo sagarra harsu / haur ederra buru sakarsu (V)

harzu: ainsiti, ederric gaiz dena, dusu / berhala, nol efné ulusu / denean, edo sagarra harsu / haur ederra buru sakarsu (V)

ospazu: espere, hura hilen d' eta su / harsas-huts sirate hospasu (V)

jakinzu: esi ordu dut iakinsu isan, / hil, ala vicigueti nisan (VII)

aratsu: oin, tipis, herotsduna / sango aratsu, xuguna (XII) 'S. charnu' (O.)

onbidetsu: eguites horla, sinhetfu / eder besain onbidetfu / isanes aipatua / sirat' ororen ahoetan (XIV)

poruzu: ikufi nahi badusu / hain sail denes, sein porusu, / sato, sato so'guitera / banohaco iauquitera (XV)

vkentsu: (Dioitela) luces isala / horl' vkenfu, horl' ekoisle, / orai isana besala (Lavr karbarien ernessia)

dohatsu: dohatfu hir' orfto-adarrac, / dohatfu hir' ekoispena (Lavr karbarien ernessia)

-tu

begiztatu: su beguistatus gueros laquet (I)

herioztatu: seren hartaric alhatu / selacos, sen herioztatu (Lavr karbarien ernessia)<sup>32</sup>

<sup>29</sup> Ikus -ti honetaz H. Lafon: «Sur les suffixes casuels -ti et -tik» *Eusko Jakintza* II, 1948, 141-150. or.

<sup>30</sup> Lafon: «guticiasu "désireux": adjectif dérivé de guticia»...

<sup>31</sup> Aski harrigarria da grafia hau, -zu aldaera nagusiaren ondoan -tsu ere erabiltzen baitu.

<sup>32</sup> Lafon «Notes...»: «herioztatu, qui n'est pas dans les dictionnaires, est formé comme *odolztatu* 'ensanglanté'; cf. Schuchardt, Intord. à l'édition de Liçarrague, p. LXVI».

- segurtatu: balin balu, sabela / garhi nerraque dela, / eci, fegurtazeco, / estu esagun düela (XIII)
- ohatu: nola nisas, / motil-guisas, / siren, iraganean, / serbizatu, / et' ohatu / nesca ororen gainean (II)
- erdi-mugan ohazera / Betlemera / ioan sedin Iosepequi (Eguberri-coplac) 'Ohazea, placer, ranger, s'aliter de maladie' (O.)
- «Hura, nois ere bainenducan / ohaturic minac, dut ukan / neure sain, et' egon sait beti / iguitu gabe faihetfeti» (Escontidearen hil-kexua)
- besarkatu: lepo' arrai mirazeco, / goxo befarcazeco, / bolarr' ask' ilhumbean / argui serbizazeco (X)
- karrointatu: carrointaturic odola, / hala nola, / ordus, mercataria, / sapparretic oldarzean / es-vstean / bide-selhataria (Eguberri-koplak)
- erbiratu: hora nol' erbirazean, / basterres baster, / bethiere lafter / ari nais sure hazean (IV)
- lilitu: gueros oihana lilitu da (I)
- bana ser provexu asquenean, / halza besalacaturic, / lilitu, orfstatu sarenean / espadacarsu fruturic (V, F. Michel)
- orstatu: gueros oihana lilitu da / bait' ar' orstatu lauretan (I)
- sagarzeac, lilitan iarten / bad' eta, lilitu-ondoan / orftazen ere, guero ekarten / du frütia ber' aroan (V, F. Michel)
- bana ser provexu asquenean, / halza besalacaturic, / lilitu, orfstatu sarenean / espadacarsu fruturic (V, F. Michel)
- zilarztatu: erhi mehe, gaineti / silharfstatu iduriac (X)
- vrrestatu: ile vrresftatu horiec, / naducate harturik (II, F. Michel)
- errege-granaztatu: argui da, da diftiau, / et' Erregue-granastatu (Vexilla Regis) 'Erregue-grana (L. oc.): pourpre royale' (O.)
- adiskidetu: arte hartan, ser estut eguin / surequi adiskidezeco? (I)
- penatu: laket nis hortan penazes (I)
- arindu: minac satis arhinzen sauzat (I)
- zulatu: vr-xortac, ardur' arduratus', / harria xila sirosu (I)
- amestu: et' vstasu, / guticiasu / nisan horri berere / amerstera (II)
- gogaratu: su serc hain haitu / eguiten saitu / nisas es gogarazera? (IV)<sup>33</sup>
- lazu: aldis nais lazen, / bilhatus nazen, / ban' es ber saitudanean (IV)
- hil-urrentu: eta nisas eduki contu, / nahi efsanusu net hil-vrhentu, / nola bainusu ia hurrentu (V)<sup>34</sup>
- hurrentu: eta nisas eduki contu, / nahi efsanusu net hil-vrhentu, / nola bainusu ia hurrentu (V)<sup>35</sup>
- otoitu: bazutan, luses, luses otoitus (V)

<sup>33</sup> Le verbe *gogaratu*, tiré d l'adverbe *gogara*, ne figure ni dans Azkue ni dans Lhande (Lafon «Notes ...»).

<sup>34</sup> *Hil-vrbentu*, litt. «achever de tuer» [...] ürhentü «achever, finir» est courant en souletin actuel (Lafon «Notes...»).

<sup>35</sup> *Hurrentu*: variante de *hurrandu*, qui signifie parfois «être près de mourir» (Lafon «Notes ...»).

- hil-nahitu: nois ere bai-nais hausas orhizen, / sin sines, banis hil-nahizen (V)  
 honlakatu<sup>36</sup>: othe niroiènes akit, / ene beti honlacazes (VII)
- gudukatu: ardura dut borogazen / sure hontarsunarequi / nitan gainen guducazen  
 (VII)<sup>37</sup>
- bezalakatu: bana ser provexu asquenean, / halza besalacaturic, / lilitu, orfstatu  
 sarenean / espadacarsu fruturic (V, F. Michel)
- hizkatu: guer' oharturic, gast-ara / hiscazetic efcucara / iin saitesquiela, ioan  
 sedin, / gordailuti héc beitarra (Lavr karbarien ernessia)
- ohoratu: alabaina nic estakit, / serbizazes, ohorazes, / othe niroiènes akit (VII)
- urrundu: vrrunzen nizausunean / nisas estusu orhizeric, / es, hurrenzen nisanean,  
 / sein ere den ikerzeric (VII)
- hurrendu: vrrunzen nizausunean / nisas estusu orhizeric, / es, hurrenzen  
 nisanean, / sein ere den ikerzeric (VII)
- hebaindu: aizinara nais hebainduco, / embaldituco et' esdeuftuco (Ezkontidearen  
 hil-kexua)
- ezdeustu: aizinara nais hebainduco, / embaldituco et' esdeuftuco (Ezkontidearen  
 hil-kexua)
- hurbiltu: esi behar-beharrenean, / hel-heles egon naisenean / ezizauste hurbiltu,  
 es heltu / aizitic sizauste guibeltu (Ezkontidearen hil-kexua)
- gibeltu: esi behar-beharrenean, / hel-heles egon naisenean / ezizauste hurbiltu,  
 es heltu / aizitic sizauste guibeltu (Ezkontidearen hil-kexua)
- sendotu: sendozen banun, ainsiti (IX)
- esi balitu Iainco-axeter, / (seinen baizarete bereter) / isenes Phebus  
 darizanaac, / hartan eguin ber' escu-lanac, / eta luen ikertu eta lotu, /  
 segur da satela fendotu (Ezkontidearen hil-kexua)
- sendatu: seren sur' oldes sendatu / behar naïena, miratu / dut neure beguiequila  
 (Simeonen canta)
- aitzindu: horzac aizinzen, xuris, / esein esne iffurcorri (XIII)
- zuretu: ni svrezen has besain sarri / berhes nindisun bertaric, / lehen hautatu  
 maitagarri / nituen, nindutenetaric (XV)
- guretu: arguitaratu' tut ilhumbeti, / et' ateraric herrazeti / guretu, et' eman  
 hec Euscara cobla honsalen efcuetara (Ezkontidearen hil-kexua)
- argiratu: arguitaratu' tut ilhumbeti, / et' ateraric herrazeti / guretu, et' eman  
 hec Euscara cobla honsalen efcuetara (Ezkontidearen hil-kexua)
- gabetu: seren bainais harsas gabetu; / seinsas fentatu eta hobetu / vfte bainuen,  
 sahartu ondoan (Ezkontidearen hil-kexua)
- sentatu: seren bainais harsas gabetu; / seinsas fentatu eta hobetu / vfte bainuen,  
 sahartu ondoan (Ezkontidearen hil-kexua)
- zahartu: seren bainais harsas gabetu; / seinsas fentatu eta hobetu / vfte bainuen,  
 sahartu ondoan (Ezkontidearen hil-kexua)

<sup>36</sup> «Tiré de l'adverbe *bonla* par adjonction du suffixe d'adverbe *-ca*. *Honla* est une variante de *bonela* «ainsi (comme je suis ou comme je fais)» (Lafon «Notes...»).

<sup>37</sup> «guducazen ne signifie sans doute pas ici «combattre», mais «discuter» (Lafon «Notes...»).

eihartu: bana hur' esta hil sahartus, / baicic higatus, et' eihartus (Ezkontidearen hil-kexua)

gor(i)tu: su niganac [sic] hozen-ago, / ni suganat gorzen-ago (VII)  
hur' ene foberaren doizen / iarriric, ari sen nois goizen / ene famurregu' isanaren, / nois ene bihoz epelaren / gar behar sen gausetan, gorzen (Ezkontidearen hil-kexua)

doitu: hur' ene foberaren doizen / iarriric, ari sen nois goizen / ene famurregu' isanaren, / nois ene bihoz epelaren / gar behar sen gausetan, gorzen (Ezkontidearen hil-kexua)

otoitu: baian espaizauscot' otoitu, / hala hur' er', ed' est' orhoitu, / edo saque' orobat isan / Ioana hil edo bici lisan (Ezkontidearen hil-kexua)

aragitu: non senti baizesan farri, / miragarri! / elhe' araguituric (Eguberri-koplak)

itzatu: bait' egonic hedaturic / oin-escüac izaturic (Vexilla Regis)

biharamuntu: arguizean, eguerditan / arratfean nazano, / gaüa goisac ordaritan / biharamunt daçano (F. Michel, II)<sup>38</sup>

**-tza**

Edertzta: egundan' es-aylis iaïo gaxtaguina / *Ederza*, nescato *onaren* seguina (VI)

emaitza: infenf' vrh' eta mirrasco / emaiç' afco / eskeni deraucate (Eguberri-koplak)

**-tzaile (ik. -le ere)**

honzale: arguitaratu' tut ilhumbeti, / et' ateraric herrazeti / guretu, et' eman hec Euscara cobla honsalen efcuetara (Ezkontidearen hil-kexua)

**-tze**

sagartzte: sagarzeac, lilitan iarten / bad' eta, lilitu-ondoan / orftazen ere, guero ekarten / du frutüa ber' aroan (V, F. Michel)

**-zain<sup>39</sup>**

betzain: banins besain / sembait bezain / edo ilhaguin sarpasu (II)

sorzain: caisus doi, esi bara / sorsainac escüetara / hur' eguitean, hartus, / iaquin du sertan bara (XIII) 'S.M. la nature ou l'esprit qui préside à la naissance des enfants' (O.)

artzain: arzainac, ieusten hiz guti / hauc seruti (Eguberri-koplak)

<sup>38</sup> Le verbe *biharamuntu*, qui n'est pas dans les dictionnaires, est tiré de *biharamun* «lendemain». Litt. «jusqu'à ce que le matin, en échange, transforme la nuit en lendemain» (Lafon, «Notes...»).

<sup>39</sup> Eratorrien artean ezarri badut ere, Oihenartek badarabil *zain* izen bere gain modura: «Hura, nois ere bainenducan / ohaturic minac, dut ukan / neure sain, et' egon sait beti / iguitu gabe aiheteti» (Escontidearen hil-kexua).

**-zarre**

maitazarre: badut guertus / maitasarre sugana (II)

beteginzarre: Ioanaren bethegvinsarrea (XIII) 'S. Perfection, accomplissement' (O.)

gorazarre: Corte guehienean Erregueren conßeillari senaren gorasarretan (Salgis Iavn, Paveco...)

batzarre: nahis bazarre eguin surequi, / iin nisan çur' okolura (III, F. Michel)

hatsarre<sup>40</sup>: Nabuffi lehenec lan berri gusietan / anhiz elhefari iardiresten dute, / hatzarrea seren emaiten baituté / sein erdia baita gausa guehienetan (Salgis Iavn, Paveco..., F. Michel)

iaukizarre: Iauquisarrea motil / gastearen aldeti (Iorralen coblac, F. Michel)<sup>41</sup>

Bada, azkenik, beste izen bat eratorriaren itxura duena: *sendagaila*, *senda(tu)* oinarri lukeena; baina erator-atzizkiak azertu dituztenek ez dute *-gail(a)* atzizkirik aipatu. Oro har atzizki edo amaiera bereko beste izenik, oinarrian aditza duenik, ez badago ez genuke erator-atzizkitzat hartuko:

sendagaila: hire *sendagaila* hunen / berria herri orori, / berri hon hori, / dinat goragui eransunen (IX)

**HITZ ELKARTUAK**

Hitz-elkarketan ere idazle oparoa dugu Oihenart. Aberastasun hori baina, ez doa zuzentasunaren kaltean; gaur ere bizirik ditugun erregelez baliatuz sortu zituen Oihenartek hitz elkartuak. Zaila zaigu, ezinezkoa esango nuke, zein diren Oihenartek berak sortuak eta zein herritik jasoak esatea. *Orotariko Euskal Hiztegia*-k duen corpusa ikustatuz *nigar-beraki*, *koral-isuri*, *kadrantarratz*, *lantza-zihite*, *larxuri*, *gogoeritu*, *hotz-harritu*, *jauretsi*, *hitz neurtu*, *herritze*, *neurtitz* edo *aitoralaba* Oihenartengan ageri direla lehenik azaltzen zaigu. Ondoren ikusiko ditugun hitz elkartuetatik batzuk Neurtitzen amaierako hiztegitxoan ere jasoak daude. Ez da, beraz, zentzugabekeria berak asmatuak direla pentsatzea.

Eratorriekin egin bezala, ondoko puntuotan bilduko nituzke Oihenarten hitz elkartuen sorkuntzak nire ustez dituen berezitasunak, edo behintzat punturik aipagarrienak:

1. Deigarri gertatzen da bi izenez osatutako menpekotasunezko izen elkartuen eta 'aditzoina + izena' egiturakoen emankortasuna. Izena + izena modukoetan

<sup>40</sup> *Orotariko Euskal Hiztegia*-k dioskunez, Oihenartengan lehen aldiz ageri ondoren, beste hamaika autorek erabilia Iparralde-ekialdeetan.

<sup>41</sup> Lafonek oharrean dioenez, ertzean honako itzulpena ageri da «L'attaque» («Notes...»).



mota askotako erlazio semantikoak aurki daitezke: iturburua (*pikota-orbain*), ondorioa (*argizar*), garaia (*gau-korronga*), gaia (*zur-kurutze*), etab.

2. Aditzoina + izena kategoriako osagaiak elkarturik sortzen dituen izenetan ere bada zer aipaturik. Bi osagaien artean ‘zertako’ ohizko erlazioa erakusten dutenen ondoan<sup>42</sup> (*gorde-leku*, *jin-kongita*, *erdi-mugan...*), badira bestelako erlazioen adierazleak ere. Horrela, *gal-kexu* eta *hil-kexu* ez dira ‘galtzeko, hiltzeko kexua’, ‘galtzeak, hiltzeak sortu duen kexua’ baino; era berean *jin-herotsa*, ‘jiteak, jiten denak ateratzen duen hotsa’ eta *ilhots* ‘hiltzean, hil delako egiten den hotsa’ genituzke (azken honetan Oihenarten itzulpena ikusi baino ez dago). Aberastasun handiko egitura da, beraz, hau Oihenartengan.

Azkenik, bereziak dira benetan *Maitenaren gal-kexua* eta *ezkontidearen hil-kexua*, aditzoinaren Thema argumentua denez izenlagunak jasotzen duena; «complainte de la perte de la Maîtresse», «complainte sur la mort de son épouse» itzultzen ditu Lafonek. Ez da, beraz, ‘ezkontidearen edo Maitenaren kexua’, Maitena edo ezkontidea galdu, hil zaiolako bestearen kexua baino. Morfologia Sortzailean esan denez, hitz-elkarketan zein eratorpenean kategoría lexikoek bakarrik hartzen dute parte; eta nekez defendi daiteke *Maitenaren gal* edo *ezkontidearen hil* aditz kategoriako direnik. Hizkuntzaren erregelak mugara eramanez idazleak egin dezakeen sorkuntzaren aurrean gaudela esango nuke; baina egitura hauek ez direla orokorrak, egunoroko hizkuntzakoak.

3. Antzeko gogoeta egingo nuke Dvandva itxurako *edate-jatean*, *ibilte-gelditze-an...* bikoteez. Bertso horietan hain egoki ikusten ditugun egitura horietan bi aditz-izen ala bi perpaus jokatu gabe elkartzen dira? Zaila da zalantzarik gabeko erantzuna ematen: oro har *-tzean* perpaus jokatu gabearen markatzat dugu, baina kasu konkretu honetan beste inolako perpaus-osagirik ageri ez denez, aditz-izentzat ere har daitezke *edate*, *jate* etab. Badirudi berriro ere hizkuntzaren ahalmenak ustiatzeko ahaleginetan dabilela Oihenart.

4. Aditz elkartuen artean egiazko aditz elkartuak eta esapidetzat joko genituzkeenak batera bildu ditut. Ezer azpimarratzekotan, aditz elkartu hauen iragangaiztasuna aipatuko nuke: *gogoeritu zara*, *hats hantu naiz*, *hotz-harritu naiz*, *sabel-lurreratu naiz...* Egia da ez direla guztiak aditz jokatu bezala azaltzen, baina ez dago zalantzarik zein laguntzaile hartzen duten esateko.

5. Bi osagaitik gorako izen elkartuek ere merezi dute bi hitz esatea. Oihenartengan atzeman ditudan gehienak [x eta y] z’ modukoak dira, hau da, lehen idazleetatik gaur arte bizi-bizirik dugun bidearen araberakoak. Mugakizun bereko bi izen elkartzen ditugu, errepikatzen den mugakizuna eskuinean ezarri eta mugatzaileak juntagailuaz elkartuaz. Halakoak dira: *kobla* edo *kantore*

<sup>42</sup> Ikus Euskaltzaindia, *Hitz-Elkarketa*/3, 1991, *Jarleku* elkarteak kapitulua, eta M. Azkarate eta F. Olarte, «Erator-atzizki ala eratorpen-atzizki» *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» Gehigarriak, XIV, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1991, 753-765. or.

*eske, nigar eta deitore eske, ur edo arno apur baten.* Beste adibide batean juntagailua falta da, baina funtsean, Lafonen oharrean argi ikusten den bezala, egitura bera da: *hec ene barascal, hec aubal-iaquiac*; harrigarria, izen elkartua erdibituz sintagma ergatiboa tartekatu izana da. Horrenbestez, ezin dugu izen elkartu bakarraz hitz egin; bitxia izan arren, bi perpaus ditugula esan beharko dugu, bietan sintagma absolutiboaren buru izen elkartua delarik. Bi izen elkartu horietako mugakizuna *jaki* izanik, ezkerrekoan isilpean utzi du. 'Aditzoina + izena' egiturako azken adibideetan bezala, lexikoa eta sintaxia gurutzaturik ditugu.

Bestalde, badu Oihenartek bi osagaitik gorako beste adibide bat ere, *euscara cobla honzale*, aldi berean mugatzaile elkartua (*euskara kobla*) duen elkarte sintetikoa.

6. Hitz elkartu jakin batzuek iruzkinen bat edo beste eskatzen dute:

- a. *errege-grana* 'pourpre royale' bikoteak, izenondo erlazionaldun sintagma euskaraz izen elkartuaz ordaintzeko usadio zaharra erakusten du.
- b. (*Herodesi*) *bat-ihesi* adberbioak *batu* aditza duela mugatzaile dirudi (cf. Lafonen itzulpena «pour éviter de rencontrer Hérode»), nahiz 'aditzoina + aditzondoa' ez izan oso ohizkoa.
- c. Zaila da interpretatzen *enzüerri*, Lafonek dioen bezala hiztegieta ez datorrena. Lhandek *entzueri* bezala ulertzen du. Badirudi *agerri* eta *enzüerri* batera azter daitezkeela; lehenean *ageri* da nagusitu dena, bestean ere *entzueri* izan daiteke parekoa. Baina nola ulertu behar da? Zein da hor bigarren osagaia? Hiru bertso horiei (*es aguerrri*, / *es ensüerri* / *estateien lekutan* II) Lafonek ematen dien itzulpenak ere («dans des endroits où l'on ne peut être ni vu ni entendu») ez du argi gehiegirik ematen. Non sailkatu ez nekienez, ez dut hitz elkartuen zerrendan sartu.

### Dvandvak<sup>43</sup>

aitamen: estusu ser vka, sarei' oguenduru / es ser har ait'amen nahia stacuru (VI)

gau-egun: gau-egun, gois-arrats, edate-iatean / eбилte-gueidze, iaikite-ezatean, / susas disut penaimendu, / neure penen lusamendu (VI)

goiz-arrats: gau-egun, gois-arrats, edate-iatean / eбилte-gueidze, iaikite-ezatean, / susas disut penaimendu, / neure penen lusamendu (VI)

edate-jatean: gau-egun, gois-arrats, edate-iatean / eбилte-gueidze, iaikite-ezatean, / susas disut penaimendu, / neure penen lusamendu (VI)

ibilte-gelditzean: gau-egun, gois-arrats, edate-iatean / eбилte-gueidze, iaikite-ezatean, / susas disut penaimendu, / neure penen lusamendu (VI)

<sup>43</sup> Sailkapenerako ikus bereziki Euskaltzaindia *Hitz-Elkarketa*/4, 1993.

jaikite-etzatean: gau-egun, gois-arrats, edate-iatean / eбилte-gueidze, iaikite-  
ezatean, / susas disut penaimendu, / neure penen lusamendu (VI)  
ahaide-adiskide: eta hargatic vtci banis / ahid', adiskides fida niz / ceruco  
iaunac, hari gomendaturic, / enuel' uzico net desconsolaturic (VIII)  
xuri-gorri: maselac xuri-gorri, / perla hutfes bidarra (XII)  
orzirale larunbatez: bait' elic' aragui iates / orsilare larumbates (Elisaren imanüac)  
zeru-lurrak: sure visize suhurrac / seru-lurrac / deracarsque baquera (Eguberri-  
koplak)  
asto-idiak: sazan gaues / bordan, arsto-idiequi (Eguberri-koplak)  
oin-eskuak: bait' egonic hedaturic / oin-escüac izaturic (Vexilla Regis)

### Aposizioak

jaun errege: maitarien iaun erregueac / higu ditu borxa-legueac, / eta haren  
resuman libertatea, / da gobernari, eta nabouffi alkatea (VIII)  
Nazaret hiria: Nazarete hirira / ethor sedin berri haren / Mariaren, / helzeco  
beharrira (Eguberri-koplak)  
Jainko jauna: Iainco iauna sutan dusu (Eguberri-koplak)  
Jesus haurra: han Iesus haurra baturic, / troxaturic / vzioan sazala (Eguberri-  
koplak)

### Menpekotasunezkoak (I + I)

gaztaro: Oihenarten gastaroa neurthizetan  
bazter-leku: bederac' aldis, / baster lecutan baturic (III)  
ur-xorta: ur-xortac, ardur' arduratus', / harria xila sirosu (I)  
kadran-orratz: kadran-orrzac, / burdin-aiz lazac / hunqui-eta bustan mehea,  
/ xuxen, han hara (III)<sup>44</sup>  
burdin-aitz: kadran-orrzac, / burdin-aiz lazac / hunqui-eta bustan mehea, /  
xuxen, han hara (III)  
begi-bazter: begui bafterras laftana, / alabadere, / sos behin ere / ezindeske  
iar nigana (IV)  
pikota-orbain: edo anderauren beguitarte, / picot' orbaines net bethea (V)  
barazkal, hek afal-jakiak: hec ene barafcal, hec auhal-iaquiac (VI)<sup>45</sup>  
gau-korronga: gau-corrongac hafperrenac (VI)  
bortxa-lege: maitarien iaun erregueac / higu ditu borxa-legueac, / eta haren  
resuman libertatea, / da gobernari, eta nabouffi alkatea (VIII)  
tragaza-zilo: et' ene bihoz gaxoac / higanic, maita-sari, / herscailu ordari, /  
sitin tragasa-xiloac (IX)

<sup>44</sup> Lafon, «Notes...»: «*Burdin-aiz* «pierre de fer», qui ne figure dans aucun dictionnaire, signifie «pierre d'aimant».

<sup>45</sup> Lafon: «*Barascal* est, comme *auhal*, le déterminant de *iaquiac*

- maiteri-lege<sup>46</sup>: ser al' ahaze / sausquin maiteri-legueac? (XI)  
 hil-aitorra: Hic hil nunala, / dinat hil aitorr' vziren (XI) 'Vne confeffion ou  
 declaration qui fait vn homme mourant' (O.)<sup>47</sup>  
 begi-zilo: begui xiloac ditu / isar bigues garnitu (XII)  
 koral-isuri: espainac badiduri / dela coral-issuri (XII)  
 oinzola: burutic oinsolala, / berreguin den besala, / dohainetan neduque /  
 haren serbiz' ahala (XIII)  
 ahutz-aralde: guero ahuz-aralde, / potarenzat lardea, / est' iguelfu, esta silar,  
 / bana cristal-ordea (XIII)  
 kristal-orde: guero ahuz-aralde, / potarenzat lardea, / est' iguelfu, esta silar,  
 / bana cristal-ordea (XIII)  
 arrosa-orri: espainac, arros' orri / gorriac besain gorri (XIII)  
 boli-zotala: bidar hori, berhala / nola boli-zotala (XIII)  
 urre-izpi: buru ederreco adatfa / laxuric baderaza, / badaiffo guerrirano /  
 vrh' ispis aberatfa (XIII)  
 artizar: beras, biho' en' artisarra / larderi' oro campora (XV)  
 bihotz-min: suc hori eguiten / besambatetan, / nais eri eziten / bihoz minetan  
 (XVI)  
 kisu-labe: surekin batu / et' aise gabe, / su nais bilhatu, / ta kifu labe (XVI)  
 herratze: arguitaratu' tut ilhumbeti, / et' ateraric herrazeti / guretu, et' eman  
 hec Euscara cobla honsalen efcuetara (Ezkontidearen hil-kexua)  
 euskara kobla: arguitaratu' tut ilhumbeti, / et' ateraric herrazeti / guretu, et'  
 eman hec Euscara cobla honsalen efcuetara (Ezkontidearen hil-kexua)  
 itots (idi-hots): eguiten nic eguin-beharrac / berac harzen golde-nabarrac, /  
 bera iarten itots-emaiten, / ber' ereiten, ber' ogui epaiten, et' oro berac  
 lant-ahala / lanzen, isan balis besala, / es aitoralau', et' emaste, / ban'  
 esein nekasale gaste (Ezkontidearen hil-kexua)  
 vr-peituz: nola baraze lanzecoan / girofleiac, vda beroan, / vr-peitus lehenic  
 ximalzen / baitir', eta net guero galzen (Ezkontidearen hil-kexua)  
 golde-nabarrak<sup>48</sup>: eguiten nic eguin-beharrac / berac harzen golde-nabarrac  
 (Ezkontidearen hil-kexua)  
 Jainko-axeter: esi balitu Iainco-axeter, / (seinen baizarete bereter) / isenes  
 Phebus darizanac, / hartan eguin ber' escu-lanac, / eta luen ikertu eta  
 lotu, / segur da satela fendotu (Ezkontidearen hil-kexua)  
 esku-lan: esi balitu Iainco-axeter, / (seinen baizarete bereter) / isenes Phebus  
 darizanac, / hartan eguin ber' escu-lanac, / eta luen ikertu eta lotu, /  
 segur da satela fendotu (Ezkontidearen hil-kexua)

<sup>46</sup> Oihenartek erantsi zuen hiztegitxoan ageri da *maiteri* «amour, amoureux» esanahiarekin, baina ez dago bat ere garbi zein den hor atzizkia. Lhandek bere hiztegian dakarren *-ri* ez baita erator-atzizkien zerrendetan azaltzen.

<sup>47</sup> Oihenarten itzulpenean garbi ikusten da *hil*-en izen balioa. Bestela aditzointzat ere har zitekeen.

<sup>48</sup> Zalantzak zalantza, «goldearen nabarrak» bezala hartu dudana; beraz, *aizkora-kirten* eta antzekoen pareko.

- hil-erri: esi estuquet berhain aſperric, / Ioan' enea sembait hil-erric, / lupean, air' edo serüan / deracufstano den leküan (Ezkontidearen hil-kexua) 'Région des morts' (O.)
- igande-egun: igand' egun', orhitsuqui, / iragan esac fainduqui (Iaincoasco nevtizac)
- jei-egun: beguir' ezac iei-egunac (Elisaren manüac)
- Eguberri-kopla: Eguberri-coplac
- Jainko-izana: eta Iainco isanarequi / erexequi / ledin guisatarsuna (Eguberri-koplak)
- haur-lan: haurlanic gab' ama deia / ene deia? (Eguberri-koplak)
- ama-deia: haurlanic gab' ama deia / ene deia? (Eguberri-koplak)
- ele-sari: Hiri Iainco hirurcuna, / gusiec gühien vguna, / gog' oroc, bide besala/ elhefari demaiala (Vexilla Regis) 'S. Louänge, congratulation' (O.)
- Nabuffi lehenec lan berri gusietan / anhiz elhefari iardireſten dute (Salgis Iavn, Paveco)
- gurutze-misterio: gu hiharen herioas, / curuze-miſterioas, / salbatu gaitualacos, / xuxen gaizac seculacos (Vexilla Regis)
- orai nabaritu doa / curuze miſterioa (Vexilla Regis)
- gizon-iduritan: hanxe guison-iduritan / gauherditan / Iefus iaio sequion (Eguberri-koplak)
- gaurdi: hanxe guison-iduritan / gauherditan / Iefus iaio sequion (Eguberri-koplak)
- abel odi: mihifcando oihal lodis / abel odis / ohacoa sequion (Eguberri-koplak) 'Odi, N. Mangeoire. Il se prend auffi pour vn vallon enſermé entre des Montagnes' (O.)
- goiz-askari: seinec erdi berriari, / gois-ascari / lakioan anhoa (Eguberri-koplak)
- olhiri: bertaric olhirietan, / nekoxetan, / artaldeac vziric (Eguberri-koplak)
- aldiri: hirurac herri handien / iaur-gehien / sein ber' aldrietan (Eguberri-koplak)
- judu errege: hartan iudu erreguearen / sorzearen / senal' ardiſtiric (Eguberri-koplak)
- han hiz Herodeſequi, / churpail sequien hila-legues, / Iudu-erregues / aipu ensutearequi (Eguberri-koplak)
- aitoralaba<sup>49</sup>: eguiten nic eguin-beharrac / berac harzen golde-nabarrac, / bera iarten itots-emaiten, / ber' ereiten, ber' ogui epaiten, et' oro berac lant-ahala / lanzen, isan balis besala, / es aitoralau', et' emaste, / ban' esein nekasale gaste (Ezkontidearen hil-kexua) 'Vne genti-femme, femme noble' (O.)

<sup>49</sup> Forma horren atzean *aitoralaba* dago, *judu-errege*-ren pareko iruditzen zaidana, nahiz ondoan Alborakuntza elkartetat hartuko genukeen *aitonen alaba izan*. *Aitonen seme, aitoren seme* formez ikus L. Michelena «*Aitonen, aitoren seme noble hidalgo*», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* XXIV, cuaderno 1º, 1968, 3-18. or.

- zurkaitz<sup>50</sup>: vfte nuen nihauc er' ekaizac / io banensa, neure surcaizac / sintusquedal' eta habeac, / neur aisolbe, neur' aterbeac (Ezkontidearen hil-kexua) 'S. Vn estanfon de bois pour apuyer vn ieune arbre, ou quelque autre chose' (O.)
- non dugu hots<sup>51</sup>: Iudeaco herrian / non dugu-otfes, iarri siren (Eguberri-koplak) bide-zeladari: carrountaturic odola, / hala nola, / ordus, mercataria, / saparretic oldarzean / es-vstean / bide-selhataria (Eguberri-koplak)
- lanza-zihite: seintan gaisk' izatequiric, / eta sauris iuhiequiric, / lansa-sihite garrazas, / punta-sorroz, aho-lazas (Vexilla Regis)
- kantalots: David, Erregue prefütüac / hiz neurtutan gaus' emanac / cantalotfes serrazanac (Vexilla Regis)
- Errege-grana: argui da, da diftiatu, / et' Erregue-granaftatu (Vexilla Regis) 'Pourpre royale' (O.)
- lohadar: suhaz motas hob' esina, / et' ongui hauta sedina / honein saindu lohadarri / lot et' erexequi-garri (Vexilla Regis)
- zuhaitz-mota: suhaz motas hob' esina, / et' ongui hauta sedina / honein saindu lohadarri / lot et' erexequi-garri (Vexilla Regis)
- zur-kurutze: Agur, ô sur curuzea, / seintan baitz' en' vfta (Vexilla Regis)
- pasione-aro: orai, pafsion' aroan, Iauna dutenac gogoan (Vexilla Regis)
- bizi-lagun: nic nigarrac, sincuriac / ene vici-lagunac (II, F. Michel)
- orfto-adar: dohatfu hir' orfto-adarrac, / dohatfu hir' ekoispena (Lavr karbarien eressia)
- karb' aldi: Hanti-landan er' vrcequi / sesan, gogo handirequi / karbateguira, bait' eguin / karb' aldiat han harequi (Lavr karbarien eressia)
- xori ihiztari: barazes baraze, xori / ihistariac besala (Lavr karbarien eressia)
- ur edo arno apur bat: bai et' efca hur, edo arno / apur baten ahalmena (Lavr karbarien eressia)
- erramu-boneta: Halacoz hic, Salguis, Efcaldun Poeta, / burura behar duc erramu-boneta (Salgvis Iavn, Paveco)
- hilarantz: Arrain iaun, Suberoaco Iuge senaren Ilhartiza (VII F. Michel)
- haur-hazi: Arrain, Mufen haur-hacia, / haur, non dazan ehorzia (VII, F. Michel)
- saldoa maitari<sup>54</sup>: aldis bi beharriac / churi miragarriac, / saldoa maitariri / gorheritan iarriac (XIII)

<sup>50</sup> Bigarren osagaia zein den oso garbi ikusten ez dudana, baina Oihenarten itzulpenaren arabera, 'étançon de bois', menpekotasunezko izen elkartutzat har daitekeena. P. Mugicak, *Diccionario Castellano-Vasco*, 1973, esaterako, 'puntal, étançon' zurkaitz itzultzen du.

<sup>51</sup> Lehenengo osagaia berez galde-perpaua den neurrian berezia dena. Ikus halakoetarako M. Azkarate, *Hitz Elkartuak Euskaraz*, Donostia, Mundaiz, 1990, 373. eta hurrengoak.

<sup>52</sup> Lafon, «Traduction...»: 'comme des chasseurs d'oiseaux'

<sup>53</sup> Lafon, «Notes...»: «Note, en marge: «Epitaphe».

<sup>54</sup> Aurrerago ikusiko dugun *berri erruna* bezalaxe, kontrako hurrenkeran dagoela esan daitekeena. *Maitari saldoa* da esperoko genukeena; Lafonek ere hala balitz bezala itzultzen du «à la foule des amants» («Traduction...»).

**Menpekotasunezkoak: Sintetikoak<sup>55</sup>**

- begi-hongarri: xorhi, begui-hontgarri, / hala hala muturra (XIII) ‘Agreeable aux yeux. On dit pareillement *gogohontgarri*, pour dire, agreeable à l’esprit’ (O.)
- itots-emaiten: eguiten nic eguin-beharrac / berac harzen golde-nabarrac, / bera iarten itots-emaiten, / ber’ ereiten, ber’ ogui epaiten, et’ oro berac lant-ahala / lanzen, isan balis besala, / es aitoralau’, et’ emaste, / ban’ esein nekasale gaste (Ezkontidearen hil-kexua)
- ogi-epaiten: eguiten nic eguin-beharrac / berac harzen golde-nabarrac, / bera iarten itots-emaiten, / ber’ ereiten, ber’ ogui epaiten, et’ oro berac lant-ahala / lanzen, isan balis besala, / es aitoralau’, et’ emaste, / ban’ esein nekasale gaste (Ezkontidearen hil-kexua)
- ohoinkeria-egile: esisal’ ohaidecari, / es’ ohoinkeri’ eguile, / es guesurreasco iaquile (Iaincoasco nevtizac)
- aragi-jatez: bait’ elic’ aragui iates / orsilare larumbates (Elisaren manüac)
- euskara kobla honzale: arguitaratu’ tut ilhumbeti, / et’ ateraric herrazeti / guretu, et’ eman hec Euscara cobla honsalen efcuetara (Ezkontidearen hil-kexua)
- gaitz-beha: hura galdus guero sertaco / hemen, ala gaiz-beha nago? (Ezkontidearen hil-kexua)
- kobla edo kantore eske: bad’ es nehor niri obororic / (estudan guero eguin gogoric) / eske iar cobl’ edo kantore, / baici nigar eta deitore (Ezkontidearen hil-kexua)
- nigar eta deitore eske: bad’ es nehor niri obororic / (estudan guero eguin gogoric) / eske iar cobl’ edo kantore, / baici nigar eta deitore (Ezkontidearen hil-kexua)

**Menpekotasunezkoak: Aditzoina + I**

- neurtitz: Oihenarten gastaroa neurthizetan (titulua) ‘Vers, de *Neurtu hiz*, mots mefurez’ (O.)
- jin-kongita: iin-congita / gaüan behin sugana (II)
- gorde-leku: iin, eta noura, / gorde-lekura, / eta hi han bat aquidan (III)
- gal-kexu: Maitenaren gal-kexva (VI)
- maita-sari: et’ ene bihoz gaxoac / higanic, maita-sari, / herscailu ordari, / sitin tragasa-xiloac (IX)
- hilpenan<sup>56</sup>: leihoti iausis, ohoin’ iduri, / hilpenan behar dut izuri (V)

<sup>55</sup> Hitz elkartu sintetiko guztiak, izen, izenondo edo aditzondo kategoriako izan, batera eman ditut hemen. Ikus bereziki, Euskaltzaindia: *Hitz-Elkarketa*/3, Bilbo, 1991, «Elkarte sintetikoak» kapitulua.

<sup>56</sup> Lafon: «*Hilpena* ne figure pas dans les dictionnaires: “souffrance, chagrin de mort” (“Notes...”»).

- hil-min: halas gaisquize hunetan / nun alabain esarri, / dolu egingarri, /huna niagon hil minetan (XI)
- bortxa-ahala: esta, maitefco gausetan, / haurren borx'ahalic hetan (VI)
- zerbitze-ahal: burutic oinsolala, / berreguin den besala, / dohainetan neduque / haren serbiz' ahala (XIII)
- dohainetan neduque / haren serbiz' ahala (XIII)
- maita-sari: ban' ezar' afqui gaiz, darizat, / gaisqui horren eguiteco; / galbidera, maita sarizat, / maite saituen' egosteco (XV)
- erakuts-gogo: iauqui disut, et' ihefari / dema, hara, laurherroan: / araus, sein eder laftercari / den suri eracutf-gogoan (XV)
- hil-kexu: escontidearen hil-kexua
- ilhots: bertanco ilhots havr gastaroan eguina es isanagati, eritfi dut ezaoqueela hemen gaisqui (Escontidearen hil-kexua) 'Complainte ou regret sur la mort de quelqu'un' (O.).
- jasan-egin<sup>57</sup>: nol' enainte ia fan-esines, / eta foinac ihef eguines, / buruspico edo larrapoca / eroric, oro porroca? (Ezkontidearen hil-kexua)
- lant ahala<sup>58</sup>: eguiten nic eguin-beharrac / berac harzen golde-nabarrac, / bera iarten itots-emaiten, / ber' ereiten, ber' ogui epaiten, et' oro berac lant-ahala / lanzen, isan balis besala, / es aitoralau', et' emaste, / ban' esein nekasale gaste (Ezkontidearen hil-kexua)
- erdi-mugan: erdi-mugan ohazera / Betlemera / ioan sedin Iosepequi (Eguberri-koplak)
- iin-herotfa: Guero berzen, vrrundanic, / iin-herotfa hautemanic (Lavr karbarien ernessia)
- hil-bederazurruna: vrhent-beta / hil-bederazurruna, / Iaincoari efkerren emaiten / iragaiten / situen gau' et' eguna (Eguberri-koplak)
- urhent-peitu<sup>59</sup>: Ban' are dutenec beteguinsarretan. / Esarten lan hura guehiago dute, / Esenes ecaic vziten balute, / Ed' vrhent-peituric sembait erezetan (Salgis Iavn, Paveco..., F. Michel)
- ora-gau: Ora gavan laur karbari / karban hanche siren ari (Lavr karbarien ernessia, F. Michel)<sup>60</sup>

<sup>57</sup> Oro har izenondo balioko egitura izan arren hemen izen balioan ageri zaiguna, Lafonen itzulpenak ere erakusten duenez: «dans l'impossibilité de les porter» («Traduction...»).

<sup>58</sup> Zalantzas beterik, erlatibo laburtuen mugan legokeelako, baina izentzat hartu dudana, *ahal* izena denez.

<sup>59</sup> Lafonek honakoa eranstean du: «Note, en marge: "Imparfait" ("Notes...")»

<sup>60</sup> Lafonek ohar luzea dakar hitz hau dela eta, *ora* aditzointzat hartzearen alde agertzen delarik bera: «Archu traduit: "Voilà qu'une nuit"». Mais cette traduction est certainement inexacte. *Ora* n'est pas *horra*. De plus, *ora-gauan*, dans l'exemplaire de Bayonne, est imprimé en majuscules, comme le premier mot de chaque poème, et avec un trait d'union. Il s'agit donc d'un mot composé. Ce mot ne figure dans aucun dictionnaire. Quel peut être son premier élément? Ce ne peut être le mot qui signifie «chien» qui est chez Oihenart (prov. 250) *hor*. L'a de *ora* serait difficile à expliquer. De plus, que signifierait l'expression «la nuit du chien»? *Ora* ou *orba*, comme premier terme de composé, peut représenter le substantif *or(h)e* «pâte», avec le changement bien connu de *-e* en *-a*; il peut être aussi le radical du verbe qui signifie «pétrir une pâte ou de l'argile, faire du mortier, triturer, gâcher». *Ora-*



## Alborakuntza elkarteak

- anderauren: edo anderauren beguitartea, / picot' orbaines net bethea (V)  
 nigar-heraki: kexeri, deitore, nigar-heraquiac, / hec ene barafcal, hec auhal-  
 iaquiac (VI)  
 izen gaizto: Ceren hic hil banuquen, / aipatu duquen / hir isen', isen gaixtotan  
 (IX)<sup>61</sup>  
 Jaincoazun: eta berzeric sinhetsac / Iaincoric es Iaincoaisunic / esin datequiela  
 hounic (Iaincoasco nevtizac) 'Dieu feint, Idole' (O.)  
 Eguberri: Eguberri-coplac  
 hergora: ensunic (hergoretan / bu gloria Iainco honac, / bu guisonac / bakea  
 leihorretan) (Eguberri-koplak)  
 jaun gehien: hirurac herri handien / iaur-gehien / sein ber' aldirietan (Eguberri-  
 koplak)  
 hitz neurtu: David, Erregue preftüac / hiz neurtutan gaus' emanac / cantalotjes  
 serrazanac (Vexilla Regis)  
 mihiskando: mihiscando oihal lodis / abel odis / ohacoa seguion (Eguberri-  
 koplak) 'Petit linceul' (O.)  
 nescasso: Nescaffobat amataco, / Galileaco / Nasareten hasia (Eguberri-coplac)  
 'Vierge, pucelle, de nefca offso, qui veut dire, vne fille entiere' (O.)  
 Izenondoak: Bahuvrihiak burzoro: net bilaisi / balis baisi / sensus edo bursoro  
 (II)  
 ugatz gogor: vgaz gogor, lar-churi, / leunes balous' iduri (XIII)  
 lar(ru)-xuri: vgaz gogor, lar-churi, / leunes balous' iduri (XIII)  
 punta-zorrotz: seintan gaisk' izatequiric, / eta sauris ihiequiric, / lansa-sihite  
 garrazas, / punta-sorroz, aho-lazas (Vexilla Regis)  
 aho-latz: seintan gaisk' izatequiric, / eta sauris ihiequiric, / lansa-sihite garrazas,  
 / punta-sorroz, aho-lazas (Vexilla Regis)  
 buru zakarzu: ainsiti, ederric gaiz dena, dusu / berhala, nol efné ulusu /  
 denean, edo sagarra harsu / haur ederra buru sakarsu (V)<sup>62</sup>

Partizipioa + *berri*

- erdi berria: seinec erdi berriari, / gois-ascari / lakioan anhoa (Eguberri-koplak)  
 berri erruna<sup>63</sup>: efcua xuri, nola / arrause berri erruna (XII)

---

*gau* peut signifier «nuit où l'on pétrit, nuitdu pétrissage, nuit où l'on triture». Est-ce la nuit où l'on pétrit pour faire le pain? N'est-ce pas nommée. Mais les dictionnaires traduisent *karbari* par «broyeuse de lin» et *karba* par «broie pour nettoyer le lin». Il faudrait connaître la technique du broyage du lin au Pays basque...» («Notes...»).

<sup>61</sup> Lafonek hala interpretatzen du: «*Izen gaixto* "surnom, sobriquet"» (Lhande). Le poète veut dire que le nom de cette personne deviendra un surnom évoquant la méchanceté» («Notes...»).

<sup>62</sup> Hona zer dioen Lafonek «Oharretan»: «*bur sakarsu* a la valeur d'un adjectif composé qui sert d'attribut à *haur ederra*; suppléer *denean*.

<sup>63</sup> Lehen esan bezala bitxi egiten dena hurrenkera horretan.

**Aditzak**

- gogoeritu<sup>64</sup>: han, ni nigarzu / icuffis, harc su / gogoerizen espasitu (IV)  
 hotz-harritu: eci bihoza, su beti hala / icuffis guibel saustadala, / hozarrituric  
 orai hil-hila, / hoboro nitan etabila (V)  
 hatsartu: em'ibilis, eme hatsartus (V)  
 hats hantu: net hatshanturic, sur' oh'ondora / banatorra... (V)  
 hitzeraduki<sup>65</sup>: horic iaquinic suc guertuqui, / ezinaten hizerraduki / harzas  
 berz' art' iduquitera, / vzi gabe hilzera? (Ezkontidearen hil-kexua) 'Obligé  
 enuers quelqu'vn, ou qui est tenu de faire quelque chose' (O.)  
 hobetsi: Herris campoan nenbilano, / berzen koeitac, neureac bano, hobetfis,  
 heier iarraiquiten, / harc saustan neureac eguiten (Escontidearen hil-kexua)  
 iauretsi: Iaincotan bat hutf iauretfac (Iaincoasco nevtizac) (bestela baditu  
 normalak: onetsi, gaitzetsi, etab.) 'Iaureftea, SM. Reconnoistre quelqu'vn  
 pour Seigneur, le reuerer, luy faire hommage' (O.)  
 galetfi: kexa sedin (aleguia) / egon sela galetfiric (Lavr karbarien eressia)  
 sabel-lurreratu: bertaric nusu icuffico, / hutfas vrriquituric, / cur aurkian  
 belhaurico, / sabel-lurreraturic (II, F. Michel)  
 pausu eman: Harc, erian nol' eheinazen, / sendoan er', ene gueinhazen /  
 saquien, bait' are pausu emaiten (Escontidearen hil-kexua)  
 guibel eman: Nangoenean noispait udalen, / andreac, suen alhor sabalen, /  
 nihaurenac guibel-emanic, / et' eguin-gabes hetan lanic, / ikusten nituel  
 esteialzen (Escontidearen hil-kexua)  
 ihes egin: nol' enainte iafan-esines, / eta foinac ihesf eguines, / buruspico edo  
 larrapoca / eroriric, oro porroca? (Ezkontidearen hil-kexua)

**Aditzondoa**

bat-ihesi<sup>66</sup>: izulzean, Herodei / bat-ihesi, / bide berri daroate (Eguberri-koplak)

**Bikoiztapenak (Amreditak)**

- hil-hila: eci bihoza, su beti hala / icuffis guibel saustadala, / hozarrituric orai  
 hil-hila, / hoboro nitan etabila (V)  
 bi-biak: non bait, bi-biac, helzen baguira / su beti lehiatu sira (V)  
 samur-samurra: bertaric nola, samur-samurra, / belar hori simur-simurra, / vzi  
 sizadan manus baizausat (V)

<sup>64</sup> Lafonen oharrak bi modutara ulertzeko bide ematen duela uste dut: *gogo* + *eritu*, nahiz *gogoeri* + *tu* «*Gogoerizen* ne figure dans aucun dictionnaire. La deuxième partie du mot doit être l'abstrait verbal correspondant au participe *eritu* «devenu (ou rendu) malade». *Gogoeri*, qui ne figure dans aucun dictionnaire, est formé comme *gogobera* «clément», *gogoilun* «triste», et signifie «malade de l'esprit, du coeur»; *gogoeritu* veut donc dire «rendre malade moralement»; *eri* peut, d'ailleurs, signifier «triste» («Notes...»).

<sup>65</sup> Berez *-ra-* arazlea izan arren, egiaz balio kausatiborik ez duena, *zintaten* laguntzaile iragangaitzak erakusten duenez.

<sup>66</sup> Ikus hitz elkartu honetaz hasierako kontsiderazioetan esan duguna.

zimur-zimurra: bertaric nola, samur-samurra, / belar hori simur-simurra, / vzi  
sizadan manus baizausat (V)

berez-bereza: kauffit ahal banesa / nonbait berhes-berhesa (X)

zin zinez: nois ere bai-nais hausas orhizen, / sin sines, banis hil-nahizen (V)

## HOTS-ALDAKETAK

Aurreko orrietan ikusi ditugun hitz elkartu eta eratorriak ezin dira erabat esplikatu hots-aldaketak aztertu gabe. Lexiko-sorkuntzan gertatzen diren aldaketok, horrenbeste hizpide eman digutenak, Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca* lanean aurkituko ditugu atalka bildurik. Oihenarti dagokionez ondokoak ditugu hots-aldaketa nagusiak:

1. Osagaia lehen silabakoa izanik, *-i* / *-u* amaierakoa denean, batetik ekialdeko euskalkien berezitasun dena ageri da, hau da, *-u* → ∅ bilakatzekoa, nahiz bestelakorik ere —*u* gordetzen duenik, alegia— ez den falta. *-i* → ∅ erakusten duten adibideei dagokienez, batzuk —*artizar edo artzain*— erabat hedatuak dira; beste batzuek, ostera, Oihenartek berak eginak dirudite. Horrela, *itzain* ezagunaren ondoan *itots* poema hauetan bakarrik ageri da *Orotariko Euskal Hiztegiaren* corpusean. Modu berean, *behi-zain* da literaturan hedatuena (Urtek, esaterako, *behiçáña*) edo *goritu*. Azkenik, azpimarratzekoa iruditzen zait Oihenartek darabilen *herratze* baztertuz *atzerri* izatea nagusitu dena *erbeste*-ren ondoan.

1a. larru → lar-xuri  
buru → burzoro

poru → poruzu  
buru → buru-zakarzu  
kisu → kisu-labe  
judu → judu-errege

1b. idi → it- (itots-emaiten)  
argi → art- (artizar)  
lohi → lohadar  
herri → her- (hergora, herratze)  
behi → betzain  
ardi → artzain  
handi → hantu  
gori → gortu

ogi → ogi-epaiten  
begi → begi-zilo,  
begihontgarri → begi-bazter

bizi → bizi-lagun  
xori → xori-ihiztari

2. Bi silabakoa izanik, *-e* / *-o* amaierakoa denean, berriz, badirudi *-e* / *-o* → *-a* aldaketaren adibide mordoskaren ondoan, kontrakoak ere ez dira falta. Behar bada hots-aldaketak direla eta, mereziko luke oro har eratorpenean eta hitz-elkarketan gertatzen direla esateaz gain, piska bat zehazkiago aztertzea hitz eratorrietan joera handiagoa dagoen ala ez aldaketa hauetarako (aditz eratorrien kasuan, esaterako, nabarmen samarra dirudi: *ohoratu, bezatu, luzatu...* / *luzekara, bermetarzun...*).

- 2a. ohe → ohaidekari, ohako  
 orde → ordari  
 maite → maitari  
 gorde → gordailu  
 heze → hezagarri  
 ohore → ohoratu  
 luze → luzamendu  
 ile → ilagin  
 ospe → ospazu
- 2b. gaizto → gaixtagin  
 orsto → orstatu  
 beso → besapeko  
 zulo → zulatu  
 sendo → sendatu  
 gogo → gogara  
 gizon → gizatarzun
- elhe → elhe-sari  
 bide → bide-zelatari  
 gorde → gorde-leku  
 luze → luzekara  
 berme → bermetarzun
- gogo → gogoeritu  
 orsto → orsto-adar  
 erho → erhogoa  
 aho → aho-latz
3. Bi silabatik gorako osagaiekin, azkenik, azken bokala galtzen duten adibideak eta gordetzen dutenak nahiko parekatuak daudela iruditzen zaigu. Ohargarria da, halere, (*h*)aratsu izenondoa, *haragitsu* hedatuagoaren ondoan (Urtek, eșaterako, *haraguitoqui* dakar).  
 haragi → (h)aratzu, baina (h)aragitu, (h)aragi-jatez  
 burdina → burdin-aitz Errege-grana  
 barazkari → barazkal igande-egun  
 afari → afal ohaide → ohaidekari  
 kantari → kantalots onbide → onbidetsu  
 abere → abel-hodi gurutze-misterio  
 hilarri → ilhartitz adiskide → adiskidetu  
 mihize → mihizkando
4. Kontsonante-aldaketei dagokienez, azken bokala erori ondoko herskariaren (-g → -t) edo dardarkariaren (-r → -l) aldaketez gain, aipatzekoa da bokalerortzeari loturik ez dagoen -n → -r aldaketa, *jauretsi* edo *aitoralaba* izenetan ageri dena.
- Beraz, hots-aldaketei dagokienez ere, jokabide bikoitza ikusten dugu Oihenartengan: badirudi berak sortutako hitzetan baduela hots-aldaketak egiteko joera (*ilagin, kantalots edo ilhartitz*); ez beti dena den, *errege-grana* izenak erakusten digun bezala. Hitzak euskararen ondarekoak direnean, aldiz, eta batez ere hitz elkartuen kasuan, ez dirudi hainbestearainoko joerarik duenik aldaketetarako: *judu-errege, xori-ibiztari, gurutze-misterio*... Azken batean euskal testuetan oro har aurkitzen dugun jokabide bera erakusten du Oihenartek ere, nahiz autore batzuk ausartagoak izan hots-aldaketak egitean.

Orain arte esanak labur bilduz, eta Oihenarten lexiko-sorkuntzaz balorazio-  
ren bat egitekotan, Mitxelena-ren hitzok adierazten dute ezin hobeto Zuberoa-  
ko idazlearen jokabidea:

«Oihenart garbizalea genuen. Aita Olabide gogorazten digula esango nuke, naiz itzei dagokionez, naiz ain gogoko zituen adizki sintetiko-  
ei. Auetatik batzu [...] berak asmatu ote zituelako susmoa ere zabaldu da. Alaber itzak: *neurthitz, ilhartitz, ilhots, hamarkuna, hamalaurkuna...* Jakiña, Kimika atzeratuxea egoki artean eta ezin atera bere gaiak gaurkoek bezain uts, garbi eta aratz, batere — ustez beintzat— erdal-kutsurik eta gandurik ere gabe. Etzuen orrenbestekorik nai ere noski, ikusiz eta ikasiz eskarmenturik aski bai baitzuen oraingo zenbaiten antzera bide ortatik abiatzeko. Baiña ordukoek ez bezalako arretaz jasotzen zituen itz zaarrak, gutxi erabilliak, eta maiteago zituen beti euskerak berezko ditue-  
nak. Oartzen zen, nonbait, bere kideak geienetan ez bezala, eztuela aski izkuntza batek itzak, bearra sortu-ala, ingurukoetatik artzea, eta ernal-iturria agortu-ala, izkuntza bera ere agortuz doala»<sup>67</sup>

---

<sup>67</sup> «Arnaut Oihenart», *BAP IX*, 1953, 445-463. or.